

Mila eta bat gehiago



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Mila gau eta bat gehiago ipuin sortaren antzera, azken 22 urteetako mila artikulua eta bat gehiago hauen kontakizuna aitaren batean igaro zait. Txoko honek *Gerezi sasoi aparta* izenburua zuen lehen artikulua ximple hura idatzi zuen umemoko hari, Persiako ipuin sorta horretako Nur al-Din gaztearen tankera hartzen diot, gaurko begiekin.

Ipuin horietan ematen diren azalpenetan lore eta landare ugari aipatzen da, paradisuaren pare. Baita fruituak ere; maiz fruitu hezurdunak: albertxikoa (*Prunus armeniaca*), mertxika (*Prunus persica*)... Persiako fruitu-baratze horietatik, erromatarrek zubi, etorria da fruitu hauek gurean duten izendegi zabala. Latineko *pessica*, *persica* eta *duracinus* hitzetatik abiatuta izen saltza ederra dugu: mertxika, muxika, muxurka, prexega, preskua, peska, mersika, tuaxa, duaxa, duraza, gurazau... Hau muestra txiki bat besterik ez da, beste mordoxka bat ere badarabilgu. Jo, bes-tela, duela hamar urte, 2007ko urriaren 14ko ARGIA argitaratutako *Muxika tirria* artikulura. Tirriak gura edo gutizia eta tema edo egoskorkeria adierazten ditu; baina baita hozkia ere. Sentipen horiek eta gehiago sortuko zituzten mila artikulua eta bat gehiago hauek, muxikak bezala. Azala erakargarria du, baina bilo



ELENA CHOCHKOVA-CC BY SA

motx sarri batek estalia da, eta zenbaiti hozkia eragiten dio, ez ezpaineekin ukitzean, baita eskuekin ere. Esaerak honela dio: "Mirxikaren axalaren ederra". Izan da, baita ere, azal ederrez eta lurrin hordigarriz gain artikulua zakarrik, ezin eramanak eta kontrako eztarritik joandakoak... Izan ere esaera, osorik, honela da: "Mirxikaren axalaren ederra! Barnean du hexurra gogorra".

Axalekoak, hezur gogorak eta lurrin ederrekoak, beste mila eta bat gehiago izango dira, lasai egon. Egia da, gaiak ez dira amaitzen; baina eskertuko nuke, irakurle, zuk gai mamitsuren bat eskaini

Albertxikoa (Prunus armeniaca), 'Mila gau eta bat gehiago' ipuin sortan aipatzen den landare ugarietako bat.

eta trukean artikulua berri bat eskatzea. Adibidez, eskaintza kutsua du, baina baita eskearena ere "Letxuga-kanpaiak" jo eta entzutea. Maiatzaren 3an hasi eta irailaren 14ra arte eguerdiro jotzen dira Santa Krutzetik Santa Krutzerara soroak eta baratzeak izurrite eta beste edozein kaltetatik zaintzeko. Nonbait joko dituzte, nik ez dut entzuten. Lehen letxuga (*Lactuca sativa*) urte sasoi horretan izaten zen. Gaur ordea... ■



943 64 17 10
www.endanea.com
 Jaitzubia 40, Hondarribia

Lurra eskuz, buruz eta bihotzez lantzen duena...

ARTISTA BAT DA!

Jarri abian zure baratze ekologikoa!






